

Marrazki hura

Jasone Osoro



Egunean bost emakumek jartzen dute salaketa tratu txarreatatik. Eta niri gutxi iruditzen zaizkit. Seguru nago dozenaka emakumek jasan behar izaten dituztela beraien bikoteen erasoak egunero-egunero. Zergatik ez dute salatzen? Zer egin daiteke honen aurrean? Ez da erantzun erraza. Heziketa beharrezkoa da, dudarik ez dago, baita lege zorrotzagoak ere baina, halere... Hara, gogoan daukat nola behin, txikiak ginenean, irakasleak marrazki bat egiteko esan zigun. Nahi genuena marraztu ahal genuen baina, lana errazteko edo, bakoitzak bere etxea irudikatzea proposatu zigun, ezagutzen genuen zerbait, gertukoa, gure geurea zen espazioa. Hantxe aritu ginen ikaskide guztiak, plastidekorrak hartuta gure etxea marrazten: sukaldea, gure ohea, egongelako sofa eta telebista, aita eta ama, anai-arrebak... Nire ondoan zegoenak bere lana erakutsi zidan harro, “beitxu, hauek dia nere amatxo eta aitatxo”. Orduan txikiegia nintzen ikusitakoaren esanahia ulertzeko baina haur hark egindako marrazkian ama txiki-txikia agertzen zen eta aita ikaragarri handia. Amak begiak itxita zituen eta aitak ahoa borobila, oihuka egongo balitz bezala. Garai hartan ez nuen ulertu, zazpi urte inguruko neskatila besterik ez nintzen, baina, ez dakit zergatik, marrazki hura nire oroimenean geratu zen. Nik dakidala irakasleak ez zuen ezer egin eta, egia esan, ez da erraza. Zer egin behar zuen? Irakaslearen amari deitu? Aitarekin hitz egin? Marrazki batean oinarritutako argudioak ba al du pisurik? Eta pena da, inork ez baitauka soluzioa. Pena da, zeren txikitari tratu txarrak etxean ikusi dituenak normaltzat hartuko ditu seguruenik eta, gerora, oso posible da berak ere antzeko bizipenak sufritu behar izatea. Faborez, errepara dezagun gehiago txikien seinaleetan. Marrazki batek mila hitzek baino gehiago esan dezake-eta.